

# HELDULEKURIK GABE PENTSATZEA

Arkitektura: film-mintzairak

2015eko urriak 7tik 29ra

# PENSAR SIN BARANDILLAS

Arquitectura: lenguajes filmicos

Del 7 al 29 de octubre de 2015



# Aurkezpena

Azken hamarkadetan, bai arkitekturan, bai hirigintzan, nola hizkuntza administratiboan, “espazio publikoa” esapidea klixee bihurtu da. Hannah Arendt filosofoak nozio hori eraiki duten ebidentzia galduei buruz gogoeta egiteko tresnak ematen ditu bere idatzietan. Arendtek grezierazko *Oikos / Polis* oposizioa honela pentsatzea proposatzen du: lehena, beharraren eta izaera pribatuzko prozesu ziklikoen premiak asebetetzera bideratutako leku bezala, eta, bigarrena, gizakiek beren harremanetarako gaitasuna eta ekintza askerako ahalmena askatzen duten mundu komun bezala. Berdinak diren besteen aurrean norbere burua erakusteko aukerari loturiko giza zorientasuna bigarren espazio horri legoke atxikirik ezinbestean, non espero ez denak gertatzeko aukera duen.

Baina ekintza komunerako aukera zabaltzen deneko leku huts hori zedarritzeaz arduratzen den pentsamenduaren arkitektura mehatxupean dago gizarte garaikideetan. Hori da gure zibilizazioa gauzatzen ari den eraldaketa antropologikoei beha ari den zenbait pentsalarik -Giorgio Agamben kasu- ateratzen duten ondorioa. Merkatua elkar onarpenerako leku bakar bilakatzeko eta norbanakoen ibilbideak hainbestearaino atomizatzean, giza harremanen etorkizuna sentikaitz bilakatzeko arriskuan legoke behar biologiko hutsaren zamatik libre den espazio baten ideia beraren aurrean.

Ekintza libre eta berri baterako aukera, publikoa denaren oinarria bera, hortaz, kalostara moduko batera hurbiltzen ariko litzateke.

David Harveyren aburuz, hiri garaikidearen konfigurazioan funtsezko papera izan duen elementu bat, berak “*kapitalaren soberakinak birkokatzearen arazoa*” deitzen duena izan da. Sistema kapitalistan lehiakorra izatekotan, mozkinen zati handi bat produkzioaren hedapenean atzera inbertitu beharra dago. Horregatik, ukazina dirudi hiri antolaketa prozesuak kapitalaren soberakinak baliatzearen arazoarekin loturik daudela, eta, hirigintza politikak botere ekonomikoa zerbitzatu izan duela bere soberakinen birkokatzearen arazoak konpontzeko eta kapitalismoak eskatzen dion hazkunde progresiboaren logikaren erritmoari eusteko.

Hiriari dagokiona antolatu, inguratu eta menderatzeko operazio horien aurrean, Manuel Delgado behin eta berriz nabarmentzen du zinez egintza publikoa dena egituraketa faltak definitzen eta eratzen duela: espazio publikoa etengabe baldintzatzen duten behin-behineko mutazioak, elkar gurutzatzeak. Hiri ingurunean ematen diren fenomenoek autogestioaren potentzialtasuna erakusten dute eta espazio mota guztietan gertatzen dira egunero; plazetan, garraioetan, saltoki handietan, nahiz eta aldizka “*bereziki garapen harrigarria*” erdiesten duten. Espazioen erabilera horiek eduki politiko esplizitua izan dezakete zenbaitetan, batzuetan denboran luza daitezke eta bestetan laburrak izan, baina kasu guztietan sustatzaileek eta agintariak aurreikusitako hari kontra egiteko gai den subjektibitate kolektiboa sortzen dute.

Non daude edo nondik igarotzen dira mugikorrek eta iragankorrek izan arren, espazio publikoa ezabatzea eta reifikatzea asmo duten estrategiak ebakitzeko, pitzatzeko gai izango diren erresistentzia puntuak? Burgesiaren bizimoduaren joera autoritario eta hertsagarriak hiri espazioaren jaiotzaren baitan, eta espazio berri horretan bizikidetzak sortutako gertutasunaren eta kutsatzeen gatazken karietara gauzatu baziren, zentzuzkoa da errepresioaren teoria berri bat garatu eta barnerratu izan den lekua ere horixe izan dela pentsatzea. Boterearen modu berriek -Foucaulten arabera- *“jada ez dute zuzenbidez funtzionatzen, teknikaren bidez baizik, ez legearen bidez ezpada normalizazioz, ez zigorraren bidez kontrolaz baizik, eta Estatua eta bere aparatuak gainditzen dituzten mailetan eta formen bidez aritzen eta gauzatzen dira”*. Boterea, beraz, jada ez bada hertsiki subiranotasun foku bakar batetik igorria den goitik beherako makineria, ze estrategia izanen dira baliagarri gaur, klase, adin, genero, etnia, mugikortasun, edota “arrazak” ezberdintasunak banatzen eta instituzionalizatzen dituen gizarte organigrama hori alde batera utzia izan dadin eta hori gauzatzen deneko espazioak berreskura ditzagan?

Soilik egoeraren mailan egongo den eta etorkizun honek dakarren arriskuari aurre egin ahal izango dion pentsamendua izango da gai publikoa dena pentsatzeko lanari era kontsekuentean heltzeko. Hannah Arendt berak sortutako esamolde bat erabiliz, gaur, mendeen joanean gizakiari hausnartzeko balio izan dioten nozio eta arauak deskalabruan dauden honetan, *“heldulekurik gabe pentsatzea”* baino ez da geratzen, gure noraezean gidatuko eta bermatuko gaituzten ezein

egitura sendoren laguntzarik gabe. Euskarri faltagatik sortzen den erabakitasun baten kontua da; izan aurrean dugun mundua ulertzeko ohiko kategoriak zaharkituta gelditu direlako, edota arlo politiko eta sozialean aurrekusi gabeko errealtate berriak agertu direlako kategoria horiek hauteman ezin ditzaketen arreta berriak galdeginenez.

Luis Murugarrenek, herriko agintariak Kontxako badia inguratzen duen pasealekuan eskudela ipintzeko beharra adierazten duteneko pasadizoa kontatzen du. Kronistaren arabera, neskamutiek *“itsasoari bizkar emanaz esertzeko ohitura zentzugabea”* zuten, hain ikusmira ederrari uko eginez bestelako gertakizun arrunt eta hutsalekin olgatzeko, eta *“hoteltxoan fatxadetara”* begiratzeko; hargatik hobestu zuten petrilaren kaltetan elementu apaingarri bat ipintzea, hala jende haren egote huts antzu harekin amaitzeko eta ingurunearen alderdi zeremoniatsua laguntzeko. Pasadizoa, ikusgarritasun modernoaren zentzu primitibo baten aurrean jartzen gaituen heinean, ezin adierazgarriagoa da hiria lengoia filmikoetatik pentsatzea proposatzen duen proiektu baterako. Pentsamendu kritikoa eta muturren aurrean dugunaren behaketa zehatza oztopatzen duen autokonplazentziatzeko sentimen hori baztertzea baita gaur premiazkoa.

BNV produkzioak, Cristina Enea Fundazioak, Donostia 2016 Fundazioak eta Tabakalerak zuzendutako proiektua da, Donostiako Arkitektura Goi Eskola Teknikoaren (EHU-UPV) laguntzarekin.

# Presentación

En las últimas décadas tanto en la arquitectura, el urbanismo como en el lenguaje administrativo, la utilización del término “espacio público” se ha convertido en un tópico. La filósofa Hannah Arendt nos ofrece en sus escritos, herramientas para reflexionar sobre la evidencia perdida de las ideas que han construido esta noción. Arendt propone pensar la oposición griega entre *Oikos* y *Polis* como una división entre el lugar de la necesidad y los procesos cíclicos de carácter privado encauzados a su satisfacción por un lado, y el mundo común donde los seres humanos despliegan su capacidad de diálogo y de acción en libertad, por el otro. La felicidad humana ligada a la posibilidad de mostrarse frente a otros iguales, estaría irremediamente ligado a este último espacio donde lo inesperado tiene la posibilidad de producirse.

Pero esta arquitectura del pensamiento encargada de delimitar el lugar vacío donde se abre la posibilidad de la acción común, se encuentra amenazada en las sociedades contemporáneas. Es esta la conclusión que deducen algunos pensadores -como Giorgio Agamben- dedicados al estudio de las transformaciones antropológicas que está llevando a cabo nuestra civilización. Al convertirse el mercado en el único lugar de reconocimiento mutuo posible, al atomizarse hasta tal punto los recorridos individuales, el horizonte de las relaciones humanas correría el riesgo de volverse insensible a la idea misma de un espacio no sometido a la necesidad puramente

biológica. La posibilidad de una acción libre y novedosa, el fundamento mismo de lo público estaría aproximándose, por lo tanto a una especie de clausura.

Para David Harvey, un elemento que ha jugado un papel esencial en la configuración de la ciudad contemporánea ha sido lo que él denomina “*el problema de la reubicación de los excedentes del capital*”. En el sistema capitalista, si se quiere ser competitivo, una parte considerable de los beneficios que se obtengan se tienen que reinvertir en expandir la producción. Por esto, parece innegable que los procesos de organización urbana se relacionan con el problema de la disposición de los excedentes de capital y que la política urbanística ha venido sirviendo al poder económico para que solucione sus problemas de reubicación de excedentes y mantener el ritmo de crecimiento progresivo que la lógica del capitalismo le exige.

Frente a estas operaciones dispuestas para ordenar, circundar y dominar lo urbano, Manuel Delgado insistirá una y otra vez, en que es la falta de estructuración la que define y constituye el hecho público por excelencia: mutaciones transitorias, de entrecruzamientos, con los que el espacio público se ve continuamente afectado. Los fenómenos que suceden en el entorno urbano, nos muestra la potencialidad de la autogestión y se producen a diario en todo tipo de espacios: plazas, transportes, centros comerciales, aunque en ciertos momentos alcanza “*un desarrollo especialmente sorprendente*”. A veces estos usos poseen un contenido político explícito y otras veces no, unas veces tienen un carácter más o menos prolongado y otros efímeros, pero en todos los casos generan una subjetividad colectiva dotada de inteligencia y capacidad para resistir a

aquellos que los promotores y autoridades tenían previsto.

¿Por dónde pasan los puntos de resistencia, aunque sean móviles y transitorios, capaces de cortar en trozos, de cortocircuitar las estrategias y dinámicas dirigidas a suprimir y cosificar el espacio público? Si la extensión autoritaria y coercitiva de los modos y formas de vida de los que la burguesía se habría dotado, se realizaron a propósito del nacimiento del espacio urbano y todos los conflictos de proximidad y contagio que la convivencia en este nuevo espacio generó, es lógico pensar que es también en este mismo lugar desde donde se desarrolla e interioriza una nueva teoría de la represión. Nuevos procedimientos del poder -que según Foucault- *“no funcionan ya por el derecho sino por la técnica, no por la ley sino por la normalización, no por el castigo sino por el control y se ejercen en niveles y por formas que exceden y rebasan el Estado y sus aparatos”*. Y si el poder, ya no es estrictamente una maquinaria que funciona de arriba hacia abajo emergiendo de un foco único de soberanía, ¿cuáles serán las estrategias que ahora, nos permitan recuperar espacios, donde este organigrama social que distribuye e institucionaliza desigualdades de clase, de edad, de género, de etnia, de movilidad, de “raza” sea dejado de lado?

Sólo un pensamiento que esté a la altura y sea capaz de confrontar el peligro que supone este horizonte podrá consecuentemente acometer la tarea de pensar lo público. Usando una expresión que la propia Hannah Arendt acuñó, hoy, una vez que las nociones y las reglas que durante siglos han permitido reflexionar al ser humano se encuentran descalabradas, no queda más remedio que *“pensar sin barandillas”*, sin estructuras sólidas que

nos garanticen y nos sirvan de guía en nuestro deambular. Se trata de una determinación que surge de la falta de sustento, bien sea porque las categorías tradicionales para entender el mundo que nos rodea manifiestan su obsolescencia, o bien porque realidades imprevistas han hecho aparición en el orden político y social reclamando una consideración que estas categorías no son capaces de distinguir.

Luis Murugarren nos relata el episodio en el que las autoridades locales advierten de la necesidad de habilitar la barandilla de la Concha en el paseo que rodea la bahía. Según el cronista local los mozos y las mozas tenían la *“absurda costumbre de sentarse de espaldas al mar”*, repudiando tan magnífica visión para entretenerse en los sucesos triviales que sucedían frente a sus ojos y mirando *“a las fachadas de los hotelitos”* y es por ello que consideraron oportuno introducir un elemento ornamental en detrimento del pretil, que permitiera a su vez acabar con la improductiva permanencia de aquellas gentes, contribuyendo al aspecto ceremonial del entorno próximo. La anécdota, en cuanto nos sitúa ante un sentido primitivo de lo espectacular moderno, no puede ser más ilustrativa para un proyecto que propone pensar la ciudad desde los lenguajes fílmicos. Es este sentimiento autocomplaciente que paraliza el pensamiento crítico y la observación precisa de lo que sucede ante nuestras narices la que hoy urge abandonar.

Arquitectura: lenguajes fílmicos es un proyecto dirigido por BNV Producciones, Fundación Cristina Enea, Tabakalera y Fundación San Sebastián 2016 con la colaboración de la Escuela Técnica Superior Arquitectura San Sebastián (EHU-UPV).

# 1. SAIOA



*Alphaville e outros*

Ez dut uste halabeharra denik *The Truman Show* bezalako film bat *Celebration* (bertako "hiritarrei" edo "erabiltzaileei" zorientasuna emateko borondatez jaiotzen den hiria) baino urte batzuk beranduxeago agertzea. Filma kokatzen deneko Seahaven hiriak asko du ikustekorik Celebration-ekin, zeina New England motako hiri batetan oinarritzen zen, gerra aurreko amerikar loriara itzultze baten moduan, posmodernismoaren paradigmapean ordea oraingoan.

*The Truman Show* horrelako hiri batetan gerta dadineko borondateak hiri-irribarretsuaren eredia irudikatzen du, non Truman protagonista nagusia den. Herriko plaza azken ondorioetaraino eramaten den *Reality Show* baten platoa da. Christof ekoizlea Seahaven sortzera daraman nostalgia Disney inperioa Celebration eraikitzea eraman zuen berbera da. Pelikulako deskonexio une bakarrak -eta erabakiorrak- Christof ekoizle

Urriak 7 eta 8, 2015

## "La Vida Feliz"

Antoni Muntadas

exekutiboaren agerpenekin eta saioaren ikusleek eginiko zenbait hondar-iruzkinen bidez gertatzen dira.

Filmak bi gauza erabakigarri ditu nabarmentzeko: *Reality Show*-a eta hau gertatzen deneko plato/hiria. Biak ala biak daude loturik 70eko hamarkadatik aurrera klase ertain eta altuen gorakada ematen den munduko lekuetan garatzen diren bitzta eta entretenimendu moduetara.

*Alphaville e outros* filmak, Brasilen *condominio fechado*, Argentinan *country* eta Espainian babestutako urbanizazio edo pribatu bezala ezagutzen direnetaz dihardu. Leku horietantxe ematen da ekologia, ongizatea eta askatasunaren kontzeptuak, isolamendu, inmunitate eta kontrol bihurtarazten dituen paradoxa; halaxe gertatzen da segurtasunezko eta zaintzako errealitate utopikoen hondo-irudi bat planteatzen duen Godarden film homonimoan ere.

**Antoni Muntadas.** Artista. Bere lanek espazio publikoaren eta pribatuaren arteko harremanaz dihardute, eta informazio kanalak eta hauek informazioa zentsuratzeko ala ideiak plazaratzeko erabiliak diren moduak ikertzen ditu. Ikastaroak eta mintegiak zuzendu ditu Europako eta Amerikako hainbat erakundetan; horien artean daude San Diegoko Kaliforniako Unibertsitatea, Pariseko École Nationale Supérieure des Beaux-Arts, San Francisco Art Institute, Universidad de Buenos Aires eta Cambridgeko (Massachusetts) MIT. Ondoko erakundeek saritu izan dute: Rockefeller Foundation (1980), Solomon R. Guggenheim Foundation (1984), Centre National des Arts Plastiques (1990), 1996an Kataluniako Generalitatearen Premi Nacional d'Arts Plàstiques saria jaso zuen; 2005an Premio Nacional de Artes Plásticas de España, eta 2009an Premio Velázquez de Artes Plásticas saria.

Asteazkena, urriak 7  
19:00 **Aurkezpena**

Antoni Muntadasen eskutik

20:00 **Proiektzioa**

**Alphaville e outros**

Antoni Muntadas, Espainia, 2011, 9'

**The Truman Show (El show de Truman)**

Peter Weir, EAB, 1998, 103'

*Alphaville e outros* film laburrak bi utopia elkarlotzen ditu: bata Jean-Luc Godarden *Alphaville* (1965) zinema fikzio-utopia; bestea, Sao Paulon, Alphavilleko komunitate itxietako utopia ekonomikoa (AEBtako *gated communities*, Brasileko *condominios fechados*). Egitarauak telebistako *reality*-en "etorkizuna" aurreratzen zuen *The Truman Show* filmaren proiektioarekin jarraitzen du -90 hamarkadan artean etorkizun zena eta jada gainditu gaituena. Jim Carrey gizon zoriontsua da gizarte zoriontsu eta perfektu batetan. Baina txotxongiloa ere bada, ez baitaki bere bizitza telebistaz zuzenean ematen dela eguneko 24 orduetan; ikusleentzat sortutako bizitza-dekoratu hori huts egiten hasi eta bere gezurrezko egitura erakusten hasten den artean. Hurrengo urtean -1999an- *The Matrix* estreinatu zen, 90 hamarkada bukaerako imajinarioa markatu zuen beste distopia teknologikoa. Eta justu ondoren, Facebook etorri zen.

Tokia: Tabakalera "Z Aretoa"

Osteguna, urriak 8

17.00-21.00 Antoni Muntadasekin  
**Topaketa**

Parte hartzeko aurrez izena eman:

943 453 526 / cristinaenea@donostia.eus

Tokia: Cristina Eneako Ingurumen

Baliabideen Etxea

## 2. saioa



*Night on earth*

Urriak 14 eta 15, 2015

### **“Noches en la gran ciudad Lo inesperado y lo espectacular”**

David Caralt

Hiri modernoetan gauaren inguruan egindako azterketek, gauak berezko izaera propioa duen espazio-denbora eratzen duela iradokitzen dute, hiriarekiko pertzepzioa aldatzen duen hiri imaginario berri bat sortzeko gai izanik etengabe bere mugak eta bere irudia berreginez. Gau-esperientzien ikerketek espazio-denbora horren aberastasuna eta aniztasuna jartzen dute agerian gehienetan. Alde batetik, oraino ezkutukoa denarekin duen lotura, ezezaguna izateagatik beldurgarria denarekin, gatazkatsua denarekin eta oro har erakartzen eta aldi berean izutzen gaituenarekin. Gaueko denborak izaera anbiguo markatua du, dena posible dela dirudienekoa: ziurgabetasunekin nahastutako askatasun promesak, gehiegikeriak, baina baita intimitate uneak ere. Gauak ezezagunerantz

eta mehatxagarriantz jotzen du, aztoragarriantz eta arriskutsurantz. Bestalde, gaua loari eta heriotzari lotzen zaio, amesgaiztoei eta izuari, misterioei eta inkontzienteari, gehiengo zintzoaren moralak ezarritako arau eta kate sozialetatik askatzeari.

Izaera menderakaitz hori izan da, historikoki, boterea gaua konkistatzera bultzatu izan duena argiztapen artifizialaren bidez. Gaueko ordu txikiak otzantzea garapen ekonomikoaren mesedetan joka dezaten, hau da, pertsonen joan-etorria erraztuko duen segurtasun maila ezartzea denbora hori kontsumorako irabaztearren. Argiztapen publikoaren zabalkundea izan zen XIX. mendetik aurrera eguna luzatzeko ezinbesteko tresna, gaua gizartearen gehiengoak goza zezan hiri espektakulu handi bihurtuz.

Asteazkena, urriak 14

19:00 **Aurkezpena**

David Caralten eskutik

20:00 **Proiektzioa**

**Night on earth (Noche en la tierra)**

Jim Jarmusch, AEB, 1985, 129'

*Night on earth* filmaren azpтитuluak *-five taxis, five cities, one night-* dena esaten du. Gauaren espazio-denbora berean munduko bost hiritan gertatzen diren bost istorio dakartzkigu: Los Angeles, New York, Paris, Roma eta Helsinki. Badirudi argiztapen artifizialak gauez hiriak berdintzen dituela, baina hiria bere izatezko topografian agertzen da azkenean. Los Angelesen iragarki argitsuek espazio publikoa betetzen badute, New Yorkeko kalezulo ilunetan metro sarbideei kea darie; Parisen Sena ibaia argien islatzaile bada, Romak argiztapen eskasa du; eta hotzak akabatzen eta kaleak hutsik dituen Helsinkin behe-lainoak eta elurrak argia bahetzen dute. Filma, gauez hiri handian edozer gerta daitekeenaren aukeraren gainean eraikitzen da, hiria ez baita soilik eraikitako ingurune abstraktua, ezpada, batez ere, bizi eta jendeztatzen duten pertsona eta pertsonaiak eta berekin dituzten argi-itzaiek osatzen dutena.

Tokia: Tabakalera "Z Aretoa"

Osteguna, urriak 15

17:00-21:00 David Caraltekina

**Topaketa**

Parte hartzeko aurrez izena eman:

943 453 526 / cristinaenea@donostia.eus

Tokia: Cristina Eneako Ingurumen

Baliabideen Etxea

**David Caralt.** Arkitektoa eta irakaslea Txileko Universidad San Sebastianeko Arkitektura Eskolan. "Nocturno de Barcelona 1929" bere doktore tesian hiriaren irudi gautiarraren erabilera aztertzen du erakusketa unibertsalaren testuinguruan nazioarteko hiriburu izatera heldu bidean kokapen mekanismo gisa.

Metropolietako gauen gaia jorratu izan du argiteria elektriko bidezko beren itxura ikusgarri, erakargarri eta nahasiari erreparatu, eta horri buruz nazioarteko aldizkari eta argitalpen espezializatueta artikulua idatzi. "Aguiluz: de pirotecnias a mundos flotantes" (Siruela, 2010) liburuan, Carles Buigas ingeniariaren argidun iturri arranditsuen azpidoinea agerian jartzen saiatzen da espektakulu bidezko masen kontrolari dagokionean.

### 3. saioa



*The Big Clock*

Urriak 21 eta 22, 2015

**“Lo que la democracia podría aprender del cine negro, el vagabundo y el desplazado”**

Dean MacCannell

Zinema beltza gerraosteko klase ustelkeriaren eta krimenaren berezko isla bezala jaio zen. Kapitalismoak sobietar sozialismoaren eta txinatar komunismoaren aurka borrokatzeko demokraziaren beharra zuen garaian agertu zen. Zinema beltzak kapitalismoaren “kontzientzia errudun” bezala balio izan zuen, kontzientzia bat bazuenaren frogalez. Kapitalismoak bere nagusitasun globala ezarri gero -Txinak egun badu estatuak babestutako bere bertsiopropioa- ez zuen gehiago behar izan demokraziarik, bere “harreman publikoen arduradun” nagusia, aliatu gisa. Gero eta agerikoagoa da kapital handiak traba bezala hautematen duela demokrazia; jada ezta “beharrezko” traba moduan ere. *The Big Clock*-eko espazio filmikoetan oinarrituz, hitzaldi honek proposatzen du kapitalismo neoliberalaren

eta demokraziaren etorkizuneko tentsioak -eta bereziki “espazio publikoa” eta gizarteratzea bezalako definizio gatazkatsuak garatzen diren moduzinema beltzean aurki daitezkeela. Zinema beltzaren irakaspenerokorra krimenari buruz, botereari buruz, hierarkiari eta sozialki baztertutakoari buruz honakoa da: demokraziak egungo joerak aldatu ezean eta bere etorkizunari buruzko kontrol nahikoa kapital handiarengandik libratu ezean, soilik *uber-kapitalista* gutxi batzuk izango dute “lekua” “gizartean”.

**Dean MacCannell.** Paisajismoan katedraduna Kaliforniako Unibertsitatetik. Munduko hainbat eta hainbat unibertsitatetan ikastaroak eta hitzaldiak eman ditu: Temple, Rutgers, UCLA, Berkeley, Frantzia, Erresuma Batua eta Finlandia. Semiotikako nazioarteko elkarteko kontseiluko kidea, turismoaren ikerketarako nazioarteko institutuko kide sortzailea eta Nazioarteko Soziologia Elkarteko kidea. Amerikako semiotika elkarteko zuzendaria ere izan zen. Ikerketa lan eta artikulu askoren egilea da. Orain arte gazteleraz argitaratu direnen artean, *El turista (Melusina, 2003)*, turismoaren soziologiaren genesizat hartua izan den lana, eta *Lugares de encuentro vacíos (Melusina, 2007)*, paisaiaren, komunitatearen eta kulturaren literaturari eginiko ekarpen garrantzitsua.

Asteazkena, urriak 21

19:00 **Aurkezpena**

Dean MacCannellen eskutik (ingelesez, aldibereko itzulpena egongo da)

20:00 **Proiektzioa**

**The Big Clock**

John Farrow, AEB, 1948. 95'

Hau thrillerra da, atzerako kontaketa, zinema beltzaren urrezko aroaren garaiko zinema beltza, Charles Laughton antagonista eta nagusi despotaren paperean eta Ray Milland errudun faltsuarenean bere errugabetasuna frogatu ahal izateko erlojuaren aurkako lasterketan. Eta agertoki gisa New York hiria, gaua, tabernak eta kalekak, egunkari bateko errotatibak non protagonistak krimenaren aditu gisa lan egiten duen. Filmaren izenburuari ohore eginez, tramaren erritmoa zorrotza eta klasikoa da: basatiki eraila den emakume bat; benetako erruduna bere boteregunean ezkutatzen da; errudun faltsuak, aldiz, denen aurka borrokatu beharko du bere inguruan guztia gainbehera doan bitartean: bere kazetari lana, ezkonbizitza, etorkizuna... Eta, noski, ezinbesteko zuri-beltzekoa, Daniel L. Fapp eta John F. Seitz-en eskutik, Billy Wilder edo Mitchell Leisen bezalako enbaxak eta kolaboratzaileak. Tik-tak, tik-tak... Krimenak eta hiriak ez dute inoiz lorik egiten.

Tokia: Tabakalera "Z Aretoa"

Osteguna, urriak 22

17.00-21.00 Dean MacCannell-ekin

**Topaketa** (ingelesez)

Parte hartzeko aurrez izena eman:  
943 453 526 / cristinaenea@donostia.eus

Tokia: Cristina Eneako Ingurumen

Baliabideen Etxea

## 4. saioa



*Paraísos*

Urriak 28 eta 29, 2015

**“Del territorio como capacidad”**

Mar Villaespesa

Espazioaren produkzioa kapitalismoaren egungo fasean ekonomiaren aspektu zentral bezala; globalizazioaren biolentziak markaturiko metaketa/inbersio/kontsumo/mozkin dinamika hirigintza politiketan; lurralde antolaketa eta espazio publikoen konfigurazioa sakonki espekulatzaila eta antidemokratikoa den merkatu librearen esku uztea; edo metropoli inguruneari buruz modernitatean eraikitako mitoak etengabeko aurrerapena eta mugarik eza irizpidetzat hartuta... Guztiak ere *UNIA arteypensamiento* programako *Sobre capital y territorio* proiektua abiarazi zuten ekarpen teorikoak. Horiekin batera, abiarazle moduan, mugimendu sozialek hiritartasunari eta lurraldeari buruz egindako gogoeta kritikoak edo errealitatea eraldatzeko tresna eta aliantza berriak sortzearen lokala eta globala kontzeptuei

emandako adiera berriak; halaber, lurralde antolaketa politiken eztabaidetatik abiatuta artea eta komunitatea elkarlotzen saiatzen ari ziren tentsio gune hortatik irtendako proposamenak, edota nola sakondu tokiaren ezagupenean eta zer modutara har dezakegun parte hiritarrok bere eraikuntzan.

Basilio Martín Patinoren *Paraísos* filma proiektuaren jatorrian egon zen, batez ere des-territorializazio eta ber-territorializazio prozesuetarako dakartzan gogoeta kritikoengatik.

Asteazkena, urriak 28

19:00 **Aurkezpena**

Mar Villaespesaren eskutik

20:00 **Proiektzioa**

**Paraísos**

Basilio Martín Patino, Espainia, 1996, 77'

Hiru atzerritar Andaluzian askatasunean eta naturarekin harmonian osatutako zenbait komunitate utopiko ikertzen, sozialista utopikoen lorratzen atzetik, Tempuleko falansterioko aurrietan besteak beste. Guztiak ere arkitekto talde batek sorturiko komunitate utopiko proiektu bateko partaide dira, esperientzia alternatiboetan interesa duten eta ezarritako gizarte ordenaren aurkako ekintzaile diren talde batek antolatutako hirigintzari buruzko jardunaldi batzuetan ezagutu ondoren. Utopiaren posibletasunaren galderak zeharkatzen du goitik behera dokumental hau. Patinok, zine fabulaztaile eta historialari lanbideak desberdinduz eta aldi berean gurutzatuz kontatzeko moduak entsetzen ditu, hausturak sortzen ditu eta geure buruak nola berrasmatzen ditugun begiratzeko leihoak irekitzen ditu; ezein autoritate adierazpenetik urrun dagoen eta ikuslearekin elkarrizketa irekian eta kritikoan ari den poetika bat, errealitatea nola bizitzeari, eta amesteari buruz ere, ariketa parte-hartzaileak proposatzeko.

Tokia: Tabakalera "Z Aretoa"

**Osteguna, urriak 29**

17.00-21.00 Mar Villaespesarekin

**Topaketa**

Parte hartzeko aurrez izena eman:

943 453 526 / cristinaenea@donostia.eus

Tokia: Cristina Eneako Ingurumen

Baliabideen Etxea

**Mar Villaespesa.** Arte kritikan eta komisariotza independentean dihardu 80ko hamarkadatik. *Arena* aldizkariko zuzendari izan zen. Komisariatu dituen erakusketen artean daude: *El sueño imperativo*, *Plus Ultra*, *100%*, *Word\$Word\$Word*, *Érase una vez...*, *Além da Água*, *Almadraba*, *Estancias*. UNIA arteypensamiento taldeko kide da eta *Pensar la edición*, *Transacciones* eta *Sobre capital y territorio* bezalako topaketa eta mintegiak zuzendu izan ditu, *Desacuerdos*, *Feminismos* boletinaren edizioarekin batera.

## Antoni Muntadas

1. SAIOA

Tokia: Tabakalera "Z Aretoa"

Tokia: Cristina Eneako  
Ingurumen Baliabideen Etxea

7

19:00 **Aurkezpena**

Antoni Muntadasen eskutik  
"La Vida Feliz"

20:00 **Proiektzioa**

**Alphaville e outros**  
**The Truman Show**

8

17.00-21.00 **Topaketa**

Antoni Muntadasekin

## David Caralt

2. SAIOA

Tokia: Tabakalera "Z Aretoa"

Tokia: Cristina Eneako  
Ingurumen Baliabideen Etxea

14

19:00 **Aurkezpena**

David Caraltaren eskutik  
"Noches en la gran ciudad  
Lo inesperado y lo espectacular"

20:00 **Proiektzioa**

**Night on earth**

15

17.00-21.00 **Topaketa**

David Caraltekin

## Dean MacCanell

3. SAIOA

Tokia: Tabakalera "Z Aretoa"

Tokia: Cristina Eneako  
Ingurumen Baliabideen Etxea

21

19:00 **Aurkezpena**

Dean MacCannellen eskutik  
"Lo que la democracia podría aprender del  
cine negro, el vagabundo y el desplazado"

20:00 **Proiektzioa**

**The Big Clock**

22

17.00-21.00 **Topaketa**

Dean MacCannellekin

## Mar Villaespesa

4. SAIOA

Tokia: Tabakalera "Z Aretoa"

Tokia: Cristina Eneako  
Ingurumen Baliabideen Etxea

28

19:00 **Aurkezpena**

Mar Villaespesaren eskutik  
"Del territorio como capacidad"

20:00 **Proiektzioa**

**Paraisos**

29

17.00-21.00 **Topaketa**

Mar Villaespesarekin

Antoni Muntadas  
Sesión 1

Lugar: Tabakalera "Sala Z"

7

19:00 **Presentación**  
A cargo de Antoni Muntadas  
**"La Vida Feliz"**

20:00 **Proyección**  
**Alphaville e outros**  
**The Truman Show**

Lugar: Centro de Recursos Medio  
Ambientales de Cristina Enea

8

17.00-21.00 **Encuentro**  
con Antoni Muntadas

David Caralt  
Sesión 2

Lugar: Tabakalera "Sala Z"

14

19:00 **Presentación**  
A cargo de David Caralt  
**"Noches en la gran ciudad**  
**Lo inesperado y lo espectacular"**

20:00 **Proyección**  
**Night on earth**

Lugar: Centro de Recursos Medio  
Ambientales de Cristina Enea

15

17.00-21.00 **Encuentro**  
con David Caralt

Dean MacCannell  
Sesión 3

Lugar: Tabakalera "Sala Z"

21

19:00 **Presentación**  
A cargo de Dean MacCannell  
**"Lo que la democracia podría aprender del**  
**cine negro, el vagabundo y el desplazado"**

20:00 **Proyección**  
**The Big Clock**

Lugar: Centro de Recursos Medio  
Ambientales de Cristina Enea

22

17.00-21.00 **Encuentro**  
con Dean MacCannell

Mar Villaespesa  
Sesión 4

Lugar: Tabakalera "Sala Z"

28

19:00 **Presentación**  
A cargo de Mar Villaespesa  
**"Del territorio como capacidad"**

20:00 **Proyección**  
**Paraísos**

Lugar: Centro de Recursos Medio  
Ambientales de Cristina Enea

29

17.00-21.00 **Encuentro**  
con Mar Villaespesa

# Sesión 1



*Alphaville e outros*

No creo que sea una coincidencia que la realización de *The Truman Show* ocurra unos años más tarde que la de *Celebration*, una ciudad que nace de la voluntad de proporcionar felicidad a sus “ciudadanos” o “usuarios”. Seahaven, la ciudad donde se sitúa la película, tiene mucho que ver con *Celebration*, la cual a su vez fue inspirada en una ciudad tipo New England, como una vuelta a la gloria americana anterior a la guerra, pero bajo el paradigma posmoderno.

La voluntad de que *The Truman Show* se desarrolle en este tipo de ciudad representa un modelo de ciudad-sonrisa en la cual Truman es el principal protagonista. La plaza del pueblo hace de plató para un *Reality Show* llevado a las máximas consecuencias. La nostalgia que mueve al productor Christof para elaborar Seahaven es la misma que llevó al imperio Disney a construir *Celebration*. En la película los únicos –y decisivos– momentos de desconexión se producen con la

7 y 8 de octubre de 2015

## “La Vida Feliz”

Antoni Muntadas

aparición del productor ejecutivo, Christof, en conversación con su equipo, así como a través de ciertos comentarios recurrentes de la audiencia del programa.

Hay que subrayar dos objetos decisivos en la película: el *Reality Show* y el plató/ciudad donde se desarrolla. Ambos están ligados a formas de vida y entretenimiento que a partir de los 70's se desarrollan en partes del globo donde las clases medias y altas crecen.

En *Alphaville e outros* se suceden los *condominios fechados*, como los llaman los brasileños, en Argentina, los *countries*, y en España, las urbanizaciones protegidas o privadas. Es en estos lugares donde tiene lugar la paradoja bajo la cual los conceptos de ecología, bienestar y libertad se transforman en aislamiento, inmunidad y control; tal y como sucede en el filme homónimo de Godard, que plantea un trasfondo de concurrentes realidades utópicas de seguridad y vigilancia.

**Antoni Muntadas.** Artista. Sus trabajos se interesan por la relación entre el espacio público y privado e investiga los canales de información y la forma en que son utilizados para censurar información o promulgar ideas.

Ha impartido cursos y seminarios en instituciones de Europa y América, como la Universidad de California de San Diego, la École Nationale Supérieure des Beaux-Arts de París, el San Francisco Art Institute, la Universidad de Buenos Aires y el MIT de Cambridge en Massachusetts.

Ha sido premiado por: la Rockefeller Foundation (1980), la Solomon R. Guggenheim Foundation (1984), el Centre National des Artes Plásticas de Francia (1990). Obtuvo el Premi Nacional d'Arts Plàstiques de la Generalitat de Catalunya (1996), el Premio Nacional de Artes Plásticas de España (2005) y el Premio Velázquez de Artes Plásticas en 2009.

Miércoles 7 de octubre

19:00 **Presentación**

A cargo de Antoni Muntadas

20:00 **Proyección**

**Alphaville e outros**

Antoni Muntadas, España, 2011, 9'

**The Truman Show (El show de Truman)**

Peter Weir, EUA, 1998, 103'

*Alphaville e outros* parte de la instalación del mismo título, en la que dos utopías son puestas en relación: por un lado, la de la utopía-ficción cinematográfica *Alphaville* (1965), de Jean-Luc Godard; por otro, la utopía económica de las comunidades cerradas (*gated communities* en los EUA, *condomínios fechados* en Brasil) de Alphaville, en São Paulo. El programa sigue con *El show de Truman*, película que adelantaba "el futuro" de los *realitys* televisados -lo que en los noventa se consideraba el futuro y que nos ha sobrepasado ya. Jim Carrey es un hombre feliz en una sociedad feliz y perfecta. Pero es también una marioneta, pues no sabe que su vida está siendo retransmitida en directo por la televisión las 24 horas del día. Hasta que esta vida-decorado construido para los televidentes empieza a fallar y a mostrar su estructura de cartón-piedra. Al año siguiente se estrenó *Matrix*, otra distopía tecnológica que marcó el imaginario de finales de los noventa. Y justo después, llegó Facebook.

Lugar: Tabakalera "Sala Z"

Jueves 8 de octubre

17.00-21.00 **Encuentro**

con Antoni Muntadas

Asistencia previa inscripción:

943 453 526 / cristinaenea@donostia.eus

Lugar: Centro de Recursos Medio Ambientales de Cristina Enea

## Sesión 2



*Night on earth*

El estudio del fenómeno nocturno en las ciudades modernas desemboca a menudo en la consideración que la noche configura un espacio-tiempo urbano con marcada personalidad propia capaz de generar un nuevo imaginario urbano donde la percepción de la ciudad se ve modificada, y sus límites y su dibujo reconfigurados continuamente. La indagación de las experiencias nocturnas nos lleva a diversas apreciaciones que anuncian, en su mayoría, la riqueza y pluralidad de este espacio-tiempo. Por un lado, su ligazón todavía con lo recóndito, lo temible por desconocido, lo conflictivo y todo aquello que nos atrae pero al mismo tiempo atemoriza. El tiempo nocturno posee un marcado carácter de ambigüedad en el cual todo parece posible: promesas de libertad mezcladas con inseguridades, momentos de excesos pero también de intimidad. La noche tiende hacia lo incierto y amenazante, lo inquietante y peligroso. Por otro lado, lo

14 y 15 de octubre de 2015

### **“Noches en la gran ciudad Lo inesperado y lo espectacular”**

David Caralt

nocturno está vinculado al sueño y a la muerte, a las pesadillas y el terror, a los misterios y lo inconsciente, a la liberación de convenciones y ataduras sociales y culturales impuestas por la moral de una mayoría bienpensante.

Este carácter indómito es el que ha llevado históricamente al poder a intentar conquistar la noche mediante los sistemas de iluminación artificial. Domesticar las horas nocturnas para hacerlas jugar a favor del progreso económico, es decir, establecer una seguridad necesaria en las calles que favorezca la circulación de la personas y ganar ese tiempo para el consumo. El mecanismo clave con tal de alargar el día fue generalizar la iluminación pública desde mediados del siglo XIX, y esta iluminación artificial de las calles convirtió la noche en un gran espectáculo urbano para goce y disfrute de un amplio espectro social.

Miércoles 14 de octubre

19:00 **Presentación**

A cargo de David Caralt

20:00 **Proyección**

**Night on earth (Noche en la tierra)**

Jim Jarmusch, EUA, 1985, 129'

El subtítulo que acompaña la película *Night on earth, Five taxis, five cities, one night*, habla por sí solo. En el mismo espacio-tiempo de la noche, asistimos a cinco historias que se desarrollan en cinco ciudades del mundo: Los Ángeles, Nueva York, París, Roma, Helsinki. La iluminación artificial parece que homogeneiza las ciudades de noche, pero la ciudad termina emergiendo con su topografía particular. Si en Los Ángeles la publicidad luminosa inunda el espacio público, en las callejuelas oscuras de Nueva York siempre sale humo de las bocas del metro (o de donde sea); si en París el Sena trabaja como espejo reflectante de las luces, Roma está mal iluminada; y en Helsinki, donde hace un frío que pela y no hay un alma por la calle, la niebla y la nieve tamizan la luz. La película se construye a partir de la expectativa de que cualquier cosa puede suceder en la noche de la gran ciudad, puesto que la ciudad no es solo un entorno abstracto construido sino, esencialmente, las personas que la habitan, los personajes que la pueblan y la luz y sombras que los acompañan.

Lugar: Tabakalera "Sala Z"

Jueves 15 de octubre

17.00-21.00 **Encuentro**

con David Caralt

Asistencia previa inscripción:

943 453 526 / cristinaenea@donostia.eus

Lugar: Centro de Recursos Medio Ambientales de Cristina Enea

**David Caralt.** Arquitecto y profesor en la Escuela de Arquitectura de la Universidad San Sebastián (Chile). En su tesis doctoral "Nocturno de Barcelona 1929", estudia el uso de la imagen de la ciudad de noche durante la exposición universal como mecanismo de posicionamiento hacia capital internacional.

Se ha interesado por el tema de la noche metropolitana en su apariencia espectacular, seductora y confusa a través de la luz eléctrica, sobre lo cual ha publicado artículos en revistas y publicaciones especializadas internacionales. En el libro "Aguiluz: de pirotecnias a mundos flotantes" (Siruela, 2010), intenta desvelar el trasfondo de los aparatosos proyectos de fuentes luminosas del ingeniero Carles Buïgas en cuanto al control de las masas con el espectáculo.

## Sesión 3



*The Big Clock*

21 y 22 de octubre de 2015

### **“Lo que la democracia podría aprender del cine negro, el vagabundo y el desplazado”**

Dean MacCannell

El cine negro nació como un reflejo característico de la corrupción de clase y del crimen en la inmediata posguerra. Apareció en un momento en el que el capitalismo necesitaba la democracia para luchar en contra del socialismo soviético y el comunismo chino. El cine negro sirvió como una “conciencia culpable” del capitalismo, como una prueba popular de que tenía conciencia. Después de que el capitalismo estableciera su predominancia global- los chinos ahora tienen su propia versión de lo mismo patrocinada por el estado- el capitalismo nunca más necesitó la democracia como su principal “relaciones públicas” aliado. Cada vez es más evidente que el gran capital percibe la democracia como una molestia, y ni siquiera como

una molestia “necesaria”. Basándome en los espacios fílmicos de *The Big Clock*, esta conferencia propone que los gérmenes de las futuras tensiones entre el capitalismo neoliberal y la democracia, y especialmente la manera en la que disputadas definiciones como espacio “público” o inclusión social se desarrollan, se pueden encontrar en el cine negro. La lección general que el cine negro da del crimen, el poder, la jerarquía y lo socialmente excluido es la siguiente: a menos que la democracia pueda cambiar las tendencias actuales y arrebate el control suficiente sobre su propio futuro del gran capital, sólo un puñado de uber-capitalistas tendrán un “lugar” “en” “la sociedad”.

**Dean MacCannell.** Catedrático de paisajismo en la Universidad de California. Ha impartido clases y conferencias en numerosas universidades por todo el mundo: Temple, Rutgers, UCLA, Berkeley, Francia, Reino Unido y Finlandia.

Es miembro del consejo de la Asociación Internacional de Estudios Semióticos, miembro fundador del Instituto Internacional de Investigación del Turismo y del grupo de investigación sobre la sociología del turismo de la Asociación Sociológica Internacional. También fue director ejecutivo de la Sociedad Semiótica de América.

Es autor de numerosas obras y artículos de investigación. Hasta la fecha, en castellano se han publicado *El turista (Melusina, 2003)* en la que se halla la génesis de la sociología del turismo, y *Lugares de encuentro vacíos (Melusina, 2007)*, una importante contribución a la literatura del paisaje, la comunidad y la cultura.

Miércoles 21 de octubre

19:00 **Presentación**

A cargo de Dean MacCannell (en inglés, habrá traducción simultánea)

20:00 **Proyección**

**The Big Clock**

John Farrow, EUA, 1948. 95'

Esto es un thriller, esto es una cuenta atrás, esto es cine negro de la época de oro del cine negro, con Charles Laughton en el papel de antagonista y jefe despótico y con Ray Milland como falso culpable en una carrera a contrarreloj para poder demostrar su inocencia. Y de fondo, la ciudad de Nueva York, la noche, los bares y callejuelas, las rotativas de un periódico donde el protagonista trabaja como especialista en crímenes.

La trama, haciendo honor al título de la película, avanza a ritmo implacable y clásico: una mujer es brutalmente asesinada; el verdadero culpable se oculta en su posición de poder; el falso culpable tendrá que enfrentarse al mundo mientras todo a su alrededor se desmorona: su trabajo como periodista, su matrimonio, su futuro. Y el blanco y negro de rigor, por supuesto, a cargo de Daniel L. Fapp y John F. Seitz, maestros y colaboradores de Billy Wilder o Mitchell Leisen. Tic, tac, tic, tac... El crimen y la ciudad nunca duermen.

Lugar: Tabakalera "Sala Z"

Jueves 22 de octubre

17.00-21.00 **Encuentro**

con Dean MacCannell (en inglés)

Asistencia previa inscripción:

943 453 526 / cristinaenea@donostia.eus

Lugar: Centro de Recursos Medio Ambientales de Cristina Enea

## Sesión 4



*Paraísos*

28 y 29 de octubre de 2015

### “Del territorio como capacidad”

Mar Villaespesa

La producción del espacio como un aspecto central de la economía en la actual fase del capitalismo, la dinámica de acumulación/inversión/consumo/beneficio en la política urbanística marcada por la violencia de la globalización, el abandono de la ordenación del territorio y de la configuración de los espacios públicos en manos de un libre mercado profundamente especulador y antidemocrático, o los mitos erigidos acerca del espacio metropolitano durante la modernidad bajo los supuestos del progreso continuo y la ausencia de límites... fueron aportaciones teóricas de las que partió el proyecto *Sobre capital y territorio* del programa UNIA arteypensamiento. Igualmente tuvo como punto de partida las nuevas reflexiones críticas llevadas a

cabo por los movimientos sociales sobre ciudadanía y territorio o la resignificación de conceptos como lo local y lo global con la idea de crear nuevas herramientas y alianzas para la transformación de la realidad; y asimismo, las propuestas que estaban operando desde ese lugar de tensión donde arte y comunidad intentan conectarse a partir de la discusión de las políticas de planificación territorial o de cómo ahondar en el conocimiento del lugar y en cómo los ciudadanos podemos participar en su construcción.

La película *Paraísos* de Basilio Martín Patino estuvo en el origen del proyecto, básicamente por las reflexiones críticas que aporta para ejercicios de des-territorialización y re-territorialización.

Miércoles 28 de octubre

19:00 **Presentación**

A cargo de Mar Villaespesa

20:00 **Proyección**

**Paraísos**

Basilio Martín Patino, España, 1996, 77'

Tres extranjeros investigan en Andalucía diversas experiencias utópicas de vida comunitaria realizadas en libertad y armonía con la naturaleza, rastreando huellas de los socialistas utópicos, entre otras, como las ruinas del falansterio de Tempul. Todos ellos forman parte de un proyecto de una comunidad utópica promovida por un grupo de arquitectos, tras conocerse en unas jornadas sobre urbanismo promovidas por personas interesadas en experiencias alternativas y desafío al orden social establecido. La pregunta sobre la posibilidad de la utopía subyace en todas las capas de esta película documental. Patino, que diferencia a la vez que cruza el oficio de fabulador cinematográfico con el de historiador, ensaya formas de contar, crea rupturas y construye ventanas desde las que mirar cómo nos reinventamos a nosotros mismos; una poética alejada de cualquier manifestación de autoridad y en diálogo abierto y crítico con el espectador para proponer ejercicios de participación colectiva sobre cómo vivir, también soñar, la realidad.

Lugar: Tabakalera "Sala Z"

Jueves 29 de octubre

17.00-21.00 **Encuentro**

con Mar Villaespesa

Asistencia previa inscripción:

943 453 526 / cristinaenea@donostia.eus

Lugar: Centro de Recursos Medio

Ambientales de Cristina Enea

**Mar Villaespesa.** Trabaja en la crítica de arte y el comisariado independiente desde los años ochenta. Fue directora de la revista *Arena*. Ha comisariado entre otras, exposiciones como: *El sueño imperativo, Plus Ultra, 100%, Word\$Word\$Word, Érase una vez..., Além da Água, Almadraba, Estancias*. Forma parte del equipo UNIA arteypensamiento, donde ha dirigido encuentros y seminarios como: *Pensar la edición, Transacciones, Sobre capital y territorio*, y la edición del boletín *Desacuerdos, Feminismos*.

FUNDACIÓN CRISTINA ENEA FUNDAZIOA  
Mandasko Dukearen pasealekua, 66  
20012 Donostia-San Sebastián  
T: 943 453 526  
cristinaenea@donostia.eus  
www.cristinaenea.org

TABAKALERA  
Mandasko Dukearen pasealekua, 32  
20012 Donostia-San Sebastián  
www.tabakalera.eu

*%100 paper birziklatua    Papel 100% reciclado*

Antolatzaileak    Organizan

Laguntzailea    Colabora

